



4 GABONAK

Errege Magoek ez zuten hutsik egin

Urtarrilaren 5eko gauean, beste behin, Errege Magoak eta euren morroiak Lasarte-Orian egon ziren etxeetan opariak banatzen, baina goizean goiz hasi ziren lanean.

Atsotakar Egoitzan bisita egin zuten Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek goizeko 11:00etan eta bazkal aurretik morroiak eskutitzak jaso eta gozokiak banatu zituzten. Arratsaldean, aldiz, herria zeharkatu zuten kabalgatan.

5 KIROLA

Urratsez urrats, profesionaletarako bidea

Herritar ugari bildu zen hilaren 4ean Tolosako Beotibar frontoian Axier Arteaga pilotari lasarteoriatarren debuta ikusteko. Ibai Zabalarekin osatu zuen bikotea eta Víctor eta Ander Imazen aurka aritu ziren.

Arerioak nagusi izan ziren lehenengo tantoetatik, eta 22-6ko emaitzarekin amaitu zen partidua. Ondoren, gerturatu ziren herritarak Olaizola II.aren eta Urrutikoetxearen garaipena ikusi ahal izan zuten Irribarria eta Merinoren aurka.



Parte hartzaile guztiak taula gainera igo ziren 'A Nation Once Again' kanta abestera

Presoen hitzak errezipitatu

Herriko presoek idatzitako testuak irakurri zituzten kultur etxean

Giro hotz eta euritsua zen kanpoan, baina Manuel Lekuona kultur etxeko auditorio barnean arratsalde goxoa bizi zuten bertaratutako lasarteoriatarrek. Aitzol Iriondo, Ibon Fernandez eta Rafa Diez Usabiaga presoek idatzitako testuak errezipitatu eta antzeztu zituzten. Espetxe borrokak eta kanpoko sostengua ziren aurtengo Errezitaldiaren ardatza.

Mikel Laboaren 'Mar-txa Baten Lehen Notak' entzuten zutela sartu ziren ikusleak auditorioan, eta doinu bera baliatu zuten Ane Labaka eta Unai Muñoa bertsolariek ekitaldiari hasiera emateko.

Bobby Sands preso irlandarrak 1981an bizitako egoera eduki zuten gogoan, Aitzol Iriondok moldatutako testua antzeztean, musika, dantzariak eta errezipitatuak lagun. Iriondok espetxe barneko borroken inguruko gogoeta partekatu zuen lasarteoriata-

rrekin, preso irlandarrak idatzitakoa moldatuz eta bere egoera azalduz.

Ibon Fernandez Iradiren testuak kartzela kanpoko sostengua zuen ardatz. Elkarrizketa formatuan antzeztu zuten, bere ikuspegia partekatuz. Espetxe barneko eta gizartearen erritmo ezberdinen inguruan egin zuen gogoeta. Arlo askotan gizartea eraldatzeko borrokan ari direnei eskerrak emanez bukatu zuen. Rafa Diez Usabiagaren seme Naikek errezipitatu zuen aitak idatzitakoa.



Espetxe borrokei eta kanpoko sostenguari buruzko gogoetak irakurri zituzten

Espetxean egonik, galdutako lagun eta famili kideak izan zituen gogoan.

Irlanda askea aldarrikatzen duen 'A Nation Once Again' kanta abestu zuten parte hartzaile guztiek Xumela Abesbatzaren laguntza zutela eserlekuetatik.

Larunbatean Bilbon eta

Baionan egin ziren manifestazioetara joateko deialdia ere luzatu zuten.

Presoen egoera hobetzeko lanean dabilzan bi emakume argentinarrak aurkeztu zituzten azken unean. Hunkituta, Argentinarrak diktadura garaian preso egotean jasotako elkartasuna ekarri zuten gogora.

MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Gure zerbitzuak:

- Makillajea
- Manikura eta pedikura
- Era ezberdinetako depilazioak (elektrikoa, argizari hotza, beroa...)
- Fotodepilazioa argi pultsatuekin
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Ultramorerik gabeko beltzarantzea
- Solariuma
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- ...

OPARI TXARTELAK EGITEN DITUGU

Maite estetika aretoan opari txartela prestatuko dizugu ezusteko polit bat eman diezaziozun nahi duzun pertsonari!

- Estetika zerbitzuak, tratamenduak...
- Zure aurrekontura egokitutako opari-txartelak
- Estetika zerbitzu mistoak

*Orduz gabe malguta daukagu

Ujistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria

KULTUR AGENDA

2016a kulturarekin hasiz

Urtarrileko kultur agenda aurkeztu du Udalak; zinema izango da nagusi

Urteari hasiera emateko, Lasarte-Oriako Udalak urtarrileko kultur eskaintza plazaratu zuen. Musikarekin, antzerkiarekin edota operarekin gozatzeko aukera izango den arren, zinema izango da nagusi. Filme arrakastatsuek ikusi ahal izango dira, 'Star Wars VII' kasu. Okendo Zinema Taldeak ere zine forumak antolatu ditu.

Kultur eskaintza zabala izango da urtarrilean. 2016ari hasiera emateko, Udalak herritarrek gonbidatu zituen antolatutako ekintzetan parte hartzera

Zinema

Hilaren 3an proiektatu zituzten urteko lehen filmak. Haurrentzako 'Hotel Transilvania 2' eta helduentzako 'Sicario' ikusi ahal izan ziren.

Asteburuan ere, zinemara joateko aukera egon da herrian. Okendo Zinema Taldearen eskutik, 'Una segunda madre' filmaren zine foruma egin zuten, eta atzo 'Pan (sekula betirako bidaia)' eta 'El puente de los espías' proiektatu ziren Manuel Lekuona kultur etxean.

Zineforumaren bigarren sesioa hilaren 22an egingo dute, 'Rams (el valle de los carneros)' filme islandiarrare-

kin.

Haurrentzako, 'El viaje de arlo' eta 'Aviones de papel' botako dituzte gaztelaniaz 24ean eta 31ean.

Star Wars saga ospetsuaren zazpigarren atala ikusteko aukera ere izango dute lasarteorietarrek. Hilaren 15etik 17ra, sei sesiotan proiektatuko dutela azaldu dute. Hala ere, 'Truman' (24ean) eta 'Palmeras en la nieve' (31ean) ere botako dituzte.

Opera

75 urte beteko ditu Plácido Domingo opera abeslari ospetsuak hilaren 21ean. 'Cyrano de Bergerac' obra antzeztu eta abestuko du Valentziako Palau des Arts antzokian lehen mailako zenbait interpretekin batera. Bi egun beranduago, 23an, Lasarte-Orian ikusteko aukera egongo da, bertsiu digitelean.



Udal ordezkariak urtarrileko kultur eskaintza aditzera ematen dituzten horma-irudien aurrean.

Sarrera 9 eurokoa izango da.

Antzerkia

Tartean antzerki taldearen 'Amour' lanarekin gozatu ahal izango da 30ean. Beraien hitzetan, "helduentzako umeen antzerkia eta haurrentzako helduen antzerkia" da. Izan ere, txiki eta nagusiek elkarrekin ondo pasa dezaketela azpimarratu nahi du Jokin Oregik eta Elisa

Sanzek zuzendutako antzerkiak.

"Baldintzarik gabeko maitasunaren eta gaitzustearen artean dagoen muga finari buruzko gogoeta" proposatzen dute. Izan ere, egileen ustez, "aurreiritziak baztertzera" egiten du deia 'Amour lanak'.

Musika

Brigitarren Komentuan 'Duo

l'incontro' bikotea arituko da 29an. Francesca Romana di Nicola harpistak eta Itziar Lujanbio oboe-joleak osatzen dute. Musikene eskolan ikasitakoak dira, eta zenbait orkestratan esperientzia lortu ostean, elkartu dira "erreperitorio zabala" eskaintzeko.

Besteak beste, Bach, Haendel, Vivaldi edota Telemann-en obrak interpretatuko dituzte.



Liburuaren koordinatzaile Jokin Urainek azaldu zituen liburuaren nondik norakoak.

'Ametsen Liburuaren' aurkezpena Xirimirin

Erbesteratu, iheslari, preso eta deportatuaren ametsak biltzen ditu 'Ametsen Liburuak'. Xirimiri Elkarteak antolatuta, koordinatzaile Jokin Urainek azaldu zituen egitasmoaren nondik norakoak.

960 orrialdeko liburu da 'Ametsen Liburuak', 426 pertsonen testigantzak jasotzen dituena. Galdera bat egin zitzaizen parte hartzaileei: zer amesten duzue? Mota guztietako erantzunak jaso dituzte. Literarioak, grafikoak edota artistikoak.

Urainek azaldu zuenez, "ametsi buruz aritzea gai korapilatsua izan daiteke, norberaren intimitatean barneratzen delako". Hala ere, emaitzarekin kontent dira. Izan ere, erantzun "zintzo eta hunkigarriak" jaso dituzte.


Edukiak aztertzeaz gain, testigantzak entzuteko parada izan zuten bertaratutakoek. Batzuk proiektatu eta liburu irakurtzean jasoko dutenaren lagintxoak dastatu zuten. Hala ere, autoreari galderak egin zizkieten lana hobeto ulertu

ahal izateko.

Estilo librea

Egileei ez zieten erantzun zehatzik eskatu koordinatzaileek. Horren ondorioz, edukia "oso anitzak" dira.

Aurkezpenean Joseba Sarrionandiaren testigantza ironia ere sumatu ahal izan zen. Liburuaren tamainari buruz aritu zen. Pisutsua izanik, "adrenalinak bezala karretilan eraman beharrekoa dela" dio. Agian, horregatik. "herria eraikitze baliotsua".

Diruz laguntzen duten erakundeak**Babeslea**

LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea**Argitaratzailea:**

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri**Erredakzioa:**

Nerea Eizaguirre, Martin Vicioso,
Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

GARRAIOA



Herritar askori bidai txartela merketuko zaio neurri honi esker.

‘Muittu Manttangorri’ autobusa Mugi txartelaren barnean

Gaurtik aurrera erabili ahal izango da txartela

Herritar ugari aspalditik eskatzen zuten Mugi txartelarekin Lasarte-Oriako ‘Muittu Manttangorri’ autobusetan ordaintzeko aukera. Gaurtik aurrera posible izango da. Izan ere, uztailan Udalbatzarrean onartu zen urtarriletik aurrera martxan jarriko zela proiektua. Ondorioz, beharpen ugari lortuko dituzte lasarteorietarrek autobusean.

TXINTXARRI

Gaurtik aurrera, Mugi eta Lurraldebus txartelekin ordaindu ahal izango da Lasarte-Oriako Manttangorri autobusetan. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde agintaritzan sartu baita Lasarte-Oria

Neurri honi esker, herritar askorentzat asko merketuko da bidaiaren prezioa. Esate-

rako, 25 urtetik beherakoek %14ko bonifikazioa lortzen dute txartelan dirua sartzen duten bakoitzean. Halaber, 65 urtetik gorakoek, %65eko desgaitasuna baino gehiago dutenek eta gizarte hobarirako eskubidea dutenek %108ko kenkaria izango dute. Familia ugari arruntek %25eko beherapena dute eta bereziek %100ekoa.

Tren eta bus aldatketan

ere hobekuntzak ekarriko ditu sistema berriak. Izan ere, Lurraldebus sistemaren barneko autobusetatik edota Euskotrenetik ‘Muittu Manttangorri’ aldatzean ez da ezer ordaindu behar.

Guztira, 25.000 euroko inbertsioa egingo da, autobusetan software informatikoa instalatu behar.

Uztailan onartuta

Uztailaren 14ko Udalbatzarrean onartu zuten neurria. Talde guztiak agertu ziren alde, Ahal Dugu izan ezik. Abstenitu egin ziren, aurreko legealditik zetorren gaia zelako eta aztertzekeo denborarik izan ez zutelako.

Ola kalean matxuratutako hodia konpontzeko obra esleituta

Astigarragako Excavaciones y Transportes Ateri SL enpresak egingo du konponketa, 20.872 eurotan esleitua.

Ola kalearen eta kale Nagusiaren arteko bidegurutzean ur zikinen hormigoizko hodi bat hondoratu zen eta horrek sortutako arazoa konpontzea du helburu obrak. Halaber, hondaketaren ondorioz, Kale Nagusiko 32an bizi diren bizilagunek buxadurekin izandako zailtasunak hobetzea espero da.

Bestalde, Gizaburuagako Inoxkea Hiri Altzariak SL enpresari 41 paperontziren eskaera egin zaio, urbaniza-



Obra egingo den bidegurutzea, Kale Nagusiaren eta Ola kalearen artekoa

zio berrietan daudenak ordeztuko. Izan ere, Lasarte-Oriako Udalak prentsa-ohar baten bidez adierazi duenez, oraingoak ez dira egokiak. Her-

doildu eta hondatu egin dira, eta aldaketa beharrezkotzat eman dute Udal agintariek. 17.864 euroko kostua izango du horniketarak.

IKASTAROA

Janari manipulatuak ikastaroa Elkolab enpresaren eskutik

Ostalaritzako autokontrolari zuzendutako edukiak dituen janari-manipulatuak ikastaroa eskainiko du Elkolab enpresak, Udaleko Osasun sailarekin elkarlanean. Urtarrilaren 19an emango da kurso hori, osasun zentroko erabilera anitzeko bigarren solairuan.

Ikastaroaren ordutegia 9:30etik 13:30era bitartekoa izango da. 45 euro ordaindu behar dituzte hori egiteko interesa dutenek. Langabetuak badira, 35.

Kursoari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, 943 36 15 06 (KIUB-OMIC) edo 943 53 33 03 (Elkolab) telefonotara hots egin daiteke.

HIRIGINTZA

Oinezkoentzako pasabide berri bat Atsobakarren

Lasarte-Oriako Udalak Atsobakar auzora iristeko oinezkoentzako pasabide berri bat eraikitzekeo lanak adjudikatu ditu. Contrucciones Loidi enpresak egingo du obra; 56.774,22 eurokoa da aurrekontua.

Udalak zehaztu duenez, oinezkoek orain arte erabili izan dute pasabide hori, baina ez zegoen bereziki prestatua horretarako.

PINTADAK

Agertutako pintadak gaitzetsi ditu alkateak

Prentsa-ohar baten bitartez, alkateak Abenduaren 29ko gauean egindako pintadak gaitzetsi ditu. "Ideia guztiak errespetatzen dituztela" azpimarratu duen arren, "ondasun publiko eta pribatuaren aurkako atentatua" izan dela dio alkate Jesus Maria Zaballosek.

Batzuetan pintadek "herritarren gehiengoak pentsatzen duena islatzen duten arren, egindakoa justifikatzen ez duela" azpimarratu du Udal ordezkariak. Halaber, salaketa jarri dute la adierazi du, "margoketak egin dituztenek garbiketa ordain dezaten".

ESKERTZA

Kontzertu solidarioan parte hartu zutenei eskertza

Andatzazpi elizbarrutiko kideek abenduaren 11ean Brigitarren komentuan egindako Kontzertu Solidarioan parte hartze guztiak eskertu nahi ditu. Ben Younech proiektua (Tanger-Zeuta) lagunduko da jasotako diruarekin. Guztira 2.330 euro. Laguntza jadanik bidali dute. Besteak beste, mantak, arropa, zapatak eta janaria.

IPAR MARTXA

Urteko lehenengo Ipar Martxa irteera egingo dute hilaren 23an

Urtarrilaren 23an egingo dute aurtengo lehen ipar martxa irteera. Goizeko 10:00etan aterako dira Okendo plazatik. Hamaiketakoarekin batera, Osakidetzako psikiatra batek hitzaldia emango du. Ipar martxaren onurak osasun mentalararen ikuspegitik aztertuko dute.

LOTERIA

Biyak Bat Elkartearen loteria sariak jaso daitezke

Jakinarazi dutenez, Biyak Bat Jubilatuen Etxeko loteria txartel saridunak dituztenak bertan kobra ditzakete, goizeko 10:30etatik 12:30etara. Zenbaki sariduna 93.840 da.

UDALBATZARRA

Udal Araudi Organikoa eztabaidatuko da biharko ohiko bilkuran

Biharko ohiko bilkuran bi gai nagusi jorratuko dituzte. Lehenik, Herriko Enplegu-Mahaia arautzeko araudia eztabaidatuko dute. Horretaz gain, Udal Araudi Organikoari buruz ere arituko dira. Bi neurriak, hasiera batean, onestea espero da.

Ohiko Udalbatzarra izanik, aurreko saioko akta onartuko dute Halaber, sesioa amaitu aurretik, herritarrek eta Udal Taldeek erregu eta galderak egiteko tartea edukiko dute, betiko moduan.



Hiru erregeak, udaletxe berriko balkoira igotzeko bidean.



Atsobakar zaharren egoitzara bisita egin zuten egunari Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek.



Gaztetxoek eskutitzak jaso eta argazkiak atera zituzten Brigitarren komentuan.



Nacho Fernandez eta Ibon Elola izan dira aurtengo marrazki lehiaketako irabazleak.

Gozokiak, ilusioa eta opariak Errege Magoen eskutik

Herritar andana bildu zen kaleetan urtarrilaren 5eko kabalgata ikusteko

Urtero lez, Ekialde Hurbiletik Lasarte-Oriara etorri ziren bisitan Meltxor, Gaspar eta Baltasar Errege Magoak. Gozokiak, ilusioa eta opari mordoa banatu zituzten lasarteoriatarren artean, urtarrilaren 5ean. Egun osoan zehar hara eta hona ibili ziren, euren laguntzaileekin batera. Atsobakar egoitza bisitatu, gaztetxoek eskutitzak jaso, kabalgatan desfilatatu eta opariak banatu zituzten gauean.

TXINTXARRI

Ekialde Hurbileko Errege Magoek ez zuten hutsik egin eta Lasarte-Oriara bisita egin zuten urtarrilaren 5ean. Goizean Atsobakar egoitza bisitatu zuten, gaztetxoek eskutitzak jaso zituzten Okendo plazan eta Brigitarren komentuan, kabalgatan desfilatatu zuten arratsal-

dean eta opari mordoa utzi zituzten gauean lasarteoriatarren etxeetan.

Goizeko hamaikak aldera joan ziren Meltxor, Gaspar eta Baltasar Atsobakar egoitzara. Bertan pozarren jaso zituzten aitona-amonon zein euren seme-alaben eta biloben eskaerak. Bien bitartean, pajeak Okendo plaza eta inguruetan izan ziren gaztetxoek gutunak jasotzen.

Arratsalde partean, Brigitarren komentuan eskutitzak jaso zituzten erregeek eta argazki ugari atera zituzten.

Kabalgata ikusgarria

Gerorago, 18:00ak aldera, herriko kaleetan zehar desfilatatu zuten errege, laguntzaile eta hainbat taldek.

Herritar andana irten zen kaleetara horiek agurtu eta Meltxorrek, Gasparrek zein Baltasarrek jaurtitako gozokiak jasotzeko. Herriari bira eman ostean, udaletxe berriko balkoian hitzalditxo eman zuten. Marrazki lehiaketako sariak ere banatu ziren han.

Amaitzean, atsedean hartu eta opariak banatu zituzten gauean zehar.

Egindako lanari sariak

Danok Kide elkarteak Oriabaiaren alboan duen egoitza jendez bete zen abenduaren 27an, jaiotzen lehiaketako sari banaketa zela-eta.

Antolatzaileek zehaztu zuten, 18 lan aurkeztu ziren aurtengo edizioan, eta 80 pertsona aritu ziren horiek burutzen. Egindako ahaleginaren saria jaso zuten Danok Kideren egoitzan.

Lau kategoriatan lehiatu dute herritarrek. 6 eta 9 urte artekoan Gari eta Nikola Iraola anaiek irabazi zuten bigarren saria, eta Jose Manuel Monje irakaslearen neska-mutil talde batek lehenengoa. 10 eta 13 bitartekoari dago-kionean, Jose Manuel Monje-

ren ikasle talde batek eskuratu du bigarren postua eta ASPACEko ikasle batzuek 1goa.

Sheila Serranorena izan zen jaiotza politena epaimahaiaren ustez 14 eta 17 urte bitartekoan kategorian; Jose Manuel Monjeren ikasle talde batek poltsikoratu zuen 2.a. Azkenik, 18 urtetik gorakoan kategorian Ana Barrerak irabazi zuen lehen saria eta Emilio Cruzek bigarrena.

Sari nagusia jaso duten herritar denentzat garaikur bereziak egin dituzte egur-tailan aritzen diren Javier Peñak eta Joxe Mari Telleriak. Epaimahaiakideak Pilar Domingo eta Eva Lizarraga izan dira. Irabazleek familia argazkia atera zuten amaieran.



Omenaldia jaso zuten Kalisto Maritxalar eta Joxe Ramon Gerrikagoitia militanteek.

Urratsez urrats, profesionaletarako bidea

Axier Arteagaren debutean, Tolosako Beotibar pilotalekuan herritar ugari bildu zen

Axier Arteaga herriko pilotariak txikitako ametsa bete zuen urtarrilaren 4an igandean: profesional mailan debutatu zuen Asegarce enpresaren eskutik, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Ametsa ez da izan ordea nahi bezain polita, 22-6 galdu baitute hark eta Ibai Zabalak Victor eta Ander Imazen aurka.

Iñigo GONZALEZ

Eurre rubio! Urratsez urrats, bidea'. Horrela zioen urtarrilaren 4an Axier Arteagari animoak emateko Beotibar pilotalekuan eskegitako afixa batek. Haren ibilbideko pauso garrantzitsuenetako bat, garrantzitsuen ez esatearren, eman zuen igande horretan 19 urteko pilotariak: profesional mailara egin zuen jauzi, Juan Mari aitak duela hainbat urte emandako urratsei jarraituz. 'Lortu dugu', zioen aldame-neko pankartak. Arteaga abizena pilotaren maila gorenetera itzuli da. Lortu du Axierrek ere.

Txikitako ametsa bete zuen Arteagak, nahiz eta ez zen izan espero bezain polita. Ibai Zabalarekin osatu zuen bikotea herritarrek, baina ez zuten aukerarik izan Victor eta Ander Imazen aurka: 22-6 galdu zuten urdinek. Eraitza, dena den, ez zen izan garran-

tzitsuena. Inportanteena profesionaletara iristea izan da, protagonista izatea. Etorriko dira arratsalde hobek.

Areroak nagusi hasieratik

Berehala ireki zuen alde bikote gorriak, hasiera-hasieratik. Konturatzerako, 5-0ekoa jarri zuten markagailuan.

Victorrek eta Imazek sei zeramatatenean egin zuten urdinek lehenengoa, Errioxako aurrelariaren huts baten ondorioz, Arteaga animatzera joandako herritarren gozamenerako. 8-4koarekin egin zuten eztanda, herritarrek txokoa utzitako ezkerkada batekin. Partidu osoan ez zioten utzi animatzeari zaleek. Bazirudien herritarrek eta Zabalak erreazionatu eta markagailua estutzea lortuko zutela, baina ez zen horrela izan.

Maila oso altua eskaini zuten Victorrek eta Imazek. Atzeko koadroetan erabat nagusi izan zen oiartzuarra; Ibai Zabalak nekez eraman



Axier Arteagak Tolosako Beotibarren egin zuen profesionaletan debuta. Nahiz eta garaipenik ez lortu, festa handia izan zen.

zuten bikote gorriaren pilotakadak, eta Victor aurrelariak primeran baliatu zituen aukera horiek denak, era guztietako tantoak eginez, ezker gantxoak batez ere. Arteagak defentsa ona erakutsi zuen zenbait tantotan, baina gainontzekoetan ezin izan zuen ezer egin gorrien nagusitasunaren aurrean. Pilota gutxi batzuk ere galdu zituen herritarrek.

Festa handia

Arestian esan bezala, gutxi-nerkoa izan zen emaitza

Herritar andana joan zen Tolosako Beotibar pilotalekura, pilotari gaztea animatzera. Festa giroa izan zen nagusi arratsalde osoan zehar, ez baitzen izan nolana hiko eguna Lasarte-Oriarentzat. Kolore urdina hartu zuten harmailek, askok partidarako prestatutako kamiseta eraman baitzuten soinean, 'Lortu Dugu' esaldia aurrealdean eta 'Arteaga II' atzealdean idatzita zutela.

Profesional mailako bidea egiteke du oraindik, baina

egin du, lortu du garrantzitsuen: haraino iristea. Gertzeko iritsi dela erakutsi beharko du herritarrek orain. Kalitatea, gogoia eta ilusioa ez zaizkio falta.

Partida horren ostean, lehen mailako bikoteen txapelketako neurketaz gozatu zuten pilotazaleek. Olaizola II.a eta Urrutikoetxea Iribarria eta Merinoren aurka. Arteaga ere iritsiko da agian horraino egunen batean. Bitartean, pazientzia. Urratsez urrats, bidea.



Mozorro ugari ikusi ahal izan zen San Silvestre lasterketako irteeran. Umore ona izan zen nagusi lasterketa osoan zehar. Korrikalarien artean lehena Raul Gomez Margallo txittoa izan zen.

ISAAC FARRE RICO

San Silvestre lasterketa arrakastatsua Lasarte-Orian

Lehenengo aldiz egin zen San Silvestre lasterketa Lasarte-Orian abenduaren 31ean. 650 pertsona inguruk hartu zuten parte urteari amaiera ematen zion proba honetan. Mozorrotuta eta jai giroan aritu ziren asko.

Urteari amaiera kirola egin ez ematea erabaki zuen herritar askok. Izan ere, erantzun bikaina jaso du I. Lasarte-Oriako San Silvestre lasterketak. Guztira 649 per-

sonak hartu zuen parte, 89k Ipar Martxa modalitatean.

Halaber, lasarteoriatar ugari arduratu da frogan antolatzeaz. 25ek osatu dute antolakuntza batzordea, eta beste

60ek lagundu zuten lasterketa egunean.

Podiumak

Korrika egindako frogan Raul Gomez Margallo eta Mari Carmen Olaso izan ziren garaile. Oscar Gandiak eta Iraitz Arruabarrenak osatu dute podiuma gizonetako lasterketan eta Amagoia Fernandez de Lezeak eta Maddi Sainzek emakumezkoetan.

Ipar Martxari dagokionez, Agustin Urretabizkaiek eraman zuen garaikurra. Arantxa Astigarraga eta Alex Ramos izan ziren bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren.

Beste sariak

Lasterketako mozorro onenak ere saria eraman zuen. Lehen edizio honetan Javier Martinezek lortu zuen jantzirik harrigarriena.

Bestalde, 70 urterekin, Pili Arrozpidek irabazi zuen beterranoaren garaikurra.

Hala ere, irabazleek soilik ez zituzten sariak etxera eraman.

Guztira, 85 opari zozketatu zituzten parte hartzaile guztien artean. Horietako asko, kolaboratzaile ziren 76 establezimendu, enpresa, taberna eta merkatariek oparitututa.

Agenda

Asteburu osoa, Manuel Lekuona kultur etxea



Izarretako guden jarraipena

'Star Wars' film sail arrakastatsuen atal berria ikusteko sei saioa izango dira Lasarte-Orian. J. J. Abramsek zuzendu tako filmean, 30 urte igaro dira Matxi-noen Aliantzak Inperio Galaktikoa garaitu zuenetik. Baina gudak jarraitzen du. Erresistentzia Lehen Ordenaren aurka borrokatzen da. Leia, Han Solo, R2D2 eta C3PO erresistentziaren alde lan egiten dute. Hauekin batera beste hainbat pertsonaia berri izango dira, Phasma kapitaina, Lehen Ordena eta Kylo Ren gudari misterioitsuari aurre egiten.

beteko dituela ospatzeko 'Cyrano de Bergerac' opera proiektatuko dute Manuel Lekuona kultur etxeako auditorioan. Prezioa: 9 euro

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Urtarrilean zehar

Jose Luis Oria margolariaren lanak, lore, paisai edo bodegoiak ikusgai.

Andoain

Dokumentala

BASTERO KULTURGUNEA

Asteartea, 19:00etan

'Heriotzaren triangulua' dokumentala ikusgai euskaraz, gaztelaniazko azpitu-tuluekin. Franco hil ondoren eskuin-muturreko talde batzuk hasi ziren bereziki indarra hartzen. Andoain-dik Astigarraga bitarteko eremuan gertatutako hilketak gogoraraziko ditu dokumental honek. Ostean, solasaldia izango da. Sarrera, 3 euro.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala, 19:00etan eta 22:00etan

Helduentzako zinea atalean, 'Star Wars' filme sorta famatuaren zazpigarren atala ikusi ahal izango da. Prezioa: 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata, 19:00etan eta 22:00etan

Helduentzako zinea atalean, 'Star Wars' filme sorta famatuaren zazpigarren atala ikusi ahal izango da. Prezioa: 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, 'Star Wars' filme sorta famatuaren zazpiga-

ren atala ikusi ahal izango da. Prezioa: 3,80 euro.

Igandea, 20:00etan

Helduentzako zinea atalean, 'Star Wars' filme sorta famatuaren zazpigarren atala ikusi ahal izango da. Prezioa: 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 22, 22:00etan

Okendo Zinema Taldearen eskutik, 'Rams (el valle de los carneros)' filma islandiarra izango da zine forumean. Prezioa: 5,50 euro

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 24, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, 'El viaje de

Arlo' animaziozko filma ikusteko aukera. Prezioa: 3,80 euro



MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 24, 20:00etan

Helduentzako zinea atalean, 'Truman' Ces Gayk zuzendutako filma ikusteko aukera. Prezioa: 5,50 euro

Opera

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 23, 19:30etan

Plácido Domingo abeslariak 75 urte

Hernani

Erakusketa

BITERI KULTUR ETXEA

Urtarrilak 21era arte, 18:00etatik aurrera

Jose Mari Igerategiren egur eskulturen erakusketa.

Txotx Eguna

GUDARIEN PLAZA

Larunbata, 12:00etan

Hernaniko txotx denboraldiaren irekiera ekitaldia.

Herritarren txokoa

Eskutitza

Lasarte-Oriak birziklatze-bidean beste urtebete galdu duela salatzen du Eguzkik

Lasarte-Oriak birziklatze-bidean pausoak emateko beste urtebete galdu du. 2015. urtea bukatu den honetan, 5. edukiontzia ere ez dute ezarri, ezarriko zutela agindu zuten arren. Seguru asko gaur egun Lasarte-Oria da (Andoainekin batera) herritarrei etxeako zaborretako zati organikoa aparte biltzeko aukera eskaintzen ez dien Gipuzkoako herri bakarra.

Aurreko legegintzaldian, Udalak 5. Edukiontzia Ezartzeko Batzorde Berezia eratu zuen, PSEren eta EAJren ekimenez, biziklatze-bidean pauso eragingarriagorik tratatzeko helburu. 2014ko apirilean, Batzordeko lehendakari Jesus Zaballosek 5. edukiontzia urte hartan bertan ezarriko zela iragarri zuen, harrabots handiarekin iragarri ere.

Joan den otsailean, agindutakoa bete ez zela ikusirik, Eguzkik eta Zero Zaborrek ohar bat plazaratu genuen, Lasarte-Oriak birziklatze-bidean pausoak emateko legegintzaldia galtzear zegoela salatuz.

Zaballosek erantzun zuen 5. edukiontzia ezarri ez izanaren erantzukizuna ez zela harena, Alkatetzarena baizik (orduan Bilduren eskuetan), besteak beste, 2015eko Udal Aurrekontua onartu gabe zegoelako.

Guk, alderdien arteko ika-miketari sartzeko batera asmorik gabe baina argi eta garbi, hura aitzakia baino ez zela esan genuen. Izan ere, baldin eta 5. edukiontzia ezartzea 2015eko aurrekontuaren edo Alkatetzaren mende bazegoen, zergatik egin zuen berak, Zaballosek, 2014an egin zuen iragarpena eta, gainera, egin zuen moduan?

Denborak gauzak bere lekuan ipini ditu: 2015eko Udal Aurrekontua maiatzeko hauteskundeak egin aurretik onartu zen; are gehiago, egin ondotik Zaballos bera da alkate. Beraz, zergatik ez du 5. edukiontzia ezarri? Oraindik astirik izan ez duela ere ezin du argudiatu. Izan ere, beste batzuek, adibidez, alderdikide duen Pasaiaiko alkateak, 5. edukiontzia

ezartzeko ez ezik, atez atekoa kentzeko denbora ere izan dute, eta hilabeteak sobratu zaizkio. (Beharbada hori da gai hau ulertzeko giltzarrietako bat, alegia, 5. edukiontzia, birziklatze-tresna gisa erabili ordez, pauso eragindarriagoak ez hartzeko barrikada gisa erabili dela.)

Kontua da Lasarte-Oriako Udalak ez omen duela 5. edukiontzia ezartzeko astirik izan, baina bai PIGRUGen aldeko mozio bat onartzeko, PSE, EAJ eta PPren botoekin. Mozio horretan, funtsean, erraustegiaren alde egiten dute (nahiz eta, ezaguna denez, PSEk, beste mozio baten bidez, ñabardura garrantzitsua gehitu duen: "Zubietan ez"), baina testua, 5. edukiontzia dagokionez ere, mamitsu bezain paradoxikoa da. Izan ere, lehen puntuan, Udalak herritarrei eskatzen die gogotik egiteko birziklatzearen alde, baina ez du gogo hori bideratzeko bitartekorik jartzen, izan ere, 5. edukiontzia ezarri gabe jarraitzen du. Azken puntuan, berriz, Foru Aldundiari eskatzen dio

PIGRUGek ezarritako gutxienezko birziklatze-maila lortzen ez duten herriak zigortzeko; bada, Lasarte-Oria zerrendako lehena izango da. Ez esan paradoxikoa ez denik birziklatzeko bitartekorik jarri ez eta, aldi berean, behar beste ez birziklatzeagatik norberaren buruarentzako zigorra aldarrikatzea.

Tira, 2016. urtea ere, urte berri gehienak bezala, mirari-urtea izango omen da. Ea 5. edukiontzia ezartzeko ere baden. Frogatuta dagoenez, 5. edukiontzia panazea izatetik oso-oso urruti dago, baina agindutakoa bete dezaten, behintzat.

Eguzki talde ekologista

SASKIBALOIA.

3x3 txapelketa hirugarren aldiz

Denera 37 taldek hartu dute parte Ostadar SKTk antolatutako saskibaloiares festan

Saskibaloia giroa arnastuz ekin dio Lasarte-Oriak 2016 urteari. Ostadar SKTk 3x3 txapelketaren hirugarren edizioa antolatu zuen urtarrileko lehen larunbatean. Aurreko urtekoa Michelingo frontoian izan zen, eta aurtengoa berriz, Udal Kiroldegian. Kategoría desberdinetako 37 talde aritu ziren denera saskibaloiaz gozatzen.

IÑIGO GONZALEZ

Urtarrileko lehen asteburuan, larunbatean zehazki, 3 zenbakia izan zen protagonista nagusia, eta ez soilik hiruko jaurtiketengatik. Ostadar SKTk antolatutako 3x3 txapelketaren hirugarren edizioa jokatu zen egun horretan, Udal Kiroldegian.

Aurreko bien antzera, arrakastatsua izan zen txapelketa; guztira kategoría desberdinetako 35 talde aritu ziren saskibaloiaz gozatzen goizeko bederatzit t'erdietatik arratsaldeko zazpit t'erdietara.

Formatuan ez da egon aldaketarik: 15 minutuko norgehiagokak jokatu zituzten kategoría bakoitza osatu zuten talde guztiek. Denbora amaitzean, beste batzuk kanxetara, egun osoan erritmo bizia mantenduz. Bien bitartean, zenbait txapelketa indi-

bidual ere bai: jaurtiketa libreana eta hirukoena, hain zuzen ere.

Hainbat berrikuntza

Horrek ez du esan nahi aurtengo edizioan berrikuntzarik izan ez denik. Esaterako, lehiaketa indibidualen artean 'GBC jaurtiketa' izenekoan aritu dira aurtengo hainbat jokalarik. Kantxa erditik saskiratu behar izan zuten baloia. Lortzen zuenarentzat, sari ederra: ACB ligan jokatzeko duen Retabet GBC Illunbeko kantxan zuzenean ikusteko sarrerak.

Horrez gain, txapelketako partidu guztien ordutegi eta emaitzak sakeleko telefonoartarako aplikazio baten bitartez jarraitu ahal izan zituzten zale eta kazetariak. Android sistemarako prestatu zuten antolatzaileek; 'Ostadar 3x3 saskibaloia' zuen izena. Jokatu ahala eguneratzen zituzten partidetako emaitzak.



Familia argazkia atera zuten kategoría guztietako txapelketaren lehiaketa amaitu eta gero.

TXEMA VALLÉS

Talde irabazleak

Kategoriaz kategoría, taldeok izan dira aurtengo irabazleak: Alebin nesketan 'Landaneskak'; infantil nesketan 'Menditxu'; infantil mutiletan 'Men in black'; 'Torpedos' izeneko kadete nesketan; kadete mutiletan 'Kuadri'; junior nesketan 'Sokrates'; 'Picaflors' junior mutiletan; 'Moussel' senior nesketan eta, azkenik, 'Durum Team' senior mutiletan. Guztiek oroigarriak jaso zituzten antolatzaileen eskutik.



'GBC jaurtiketa' izeneko lehiaketa izan da aurtengo berrikuntzetako bat.

PIRAGUISMOA.

Maialen Chourraut, 2015eko kirolari gipuzkoar onena

Gipuzkoako Kirol Prentsa Elkartearen iritziz, Maialen Chourraut herriko piraguita izan da joan den urteko kirolari gipuzkoar onena. Era ezin hobean itxi zuen herritarrek 2015a. Orain dela hiru urte irabazi zuen sari hori lehenengo aldiz.

Bukatu berri den urtean Europako txapelketa izan da Chourraut, haren ibilbidean lehenengoz. Markkleeberg herrian (Alemania) kolokatu

zuen urrezko domina. Horrez gain, Munduko Kopako pare bat proba ere poltsikoratu ditu.

Maialenek pasa den abenduaren 29an jaso zuen kirolari gipuzkoar onenaren garaikurrak, Donostiako Amara Plaza hotelean egindako ekitaldian.

Aurtengo udaran ospatuko diren Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoak prestatzen ari da orain buru-belarri. Brontzezko domina irabazi zuen Londreskoetan, 2012an.



ARETO-FUTBOLA.

Areto-futbolak badu harrobia herrian

Ostadar SKTren areto-futbol alorrek antolatuta, Eguberrietako I. txapelketan aritu dira benjamin eta kadete mailako 22 talde, Gabonetako festetan zehar. Kirol horrek badu harrobia Lasarte-Orian.

Areto-futbola herrian egonkortzeko eta beste kirol alternatiba baten berri emateko helburuekin prestatu du Ostadar SKTk Eguberrietako txapelketa. Xede horiek betetze bidean daudela esan daiteke, arrakastatsua izan baita.

Bi jardunaldi jokatu dituzte taldeek. Lehenengoa abenduaren 26 eta 27an. Bigarrena berriz, aste bete beranduago: urtarrilaren 2an eta 3an. Udal Kiroldegian eta Michelinen aritu dira gaztetxoak, bi instalazioetan giro bikaina sortuz, hainbat lagun eta guraso gerturatu baitziren norgehiagokak ikustera.

Sariak txapelketako azken egunean, hilaren 3an banatu zituzten antolatzaileek. Par-



Herriko hainbat gaztetxok hartu dute parte Eguberrietako I. txapelketan.

te-hartzaile guztiek desfilatu zuten Michelingo areto-futbol kantxan eta domina bana ere kolokatu zuten.

Talde federatuak martxan

Amaitu dira Gabonetako festak eta, ondorioz, kirol jarduerak gehienak bueltatu dira asteburu honetan, baita areto-futbola ere.

Gipuzkoako bigarren mailan aritzen den Cecilia Fruta

Denda Kebab Ostadarrek Idiazabal Gorrotxategi taldearen kontra neurtu zituen indarrak atzo Kiroldegian eta 2-0 gailendu ziren lasarteoriatarrek, sailkapeneko lehenengo postua mantenduz.

Gipuzkoako lehen mailako ISU leihoak taldeak lurre tabernaren bisita jaso zuen ostiral gauean eta 3-2 irabazi zuten, markagailuari buelta eman eta gero.

Zapirain Anaiak saria Labakaren esku

Ane Labaka herritarrak 'Beranduegi' lana aurkeztu zuen bertsopaper lehiaketara

Ane Labaka bertsolariak ederki amaitu zuen urtea. Abenduaren 30ean, Zapirain Anaiak bertsopaper lehiaketako saria, 700 euro eta oroigarria jaso zituen. Haren lana izan zen borobilena epaimahaiaren iritziz. Ez da sari hau irabazten duen lehen aldia.

Ane Labaka bertsolariak gaztetatik bertso sortak idazten ditu. Haur, gazte, zein helduen hainbat lehiaketa irabazi ditu. 2015 urtea bukatu baino lehen, berriro ere, Erreterriako Zapirain Anaiak lehiaketako sari nagusia eskuratu zuen herritarrak.

Ane Labakaren hitzetan, "txapelketa eskuratzeko esperantza txiki nuen. Oso gustora geratu nintzen egindako lanarekin. Gainera, beti izan dut zorrea lehiaketa honetan eta behin baino gehiagotan irabazi dut. Hala ere, epaia eman arte ezin duzu jakin".

Saribanaketa baino aste bete lehenago irabazlea zela jakin zuela adierazi digu, "azaro bukaeran aurkeztu nuen lana eta abendu erdialdera deitu zidaten garaile nintzela jakin arazteko".

Herritarrak abenduaren 30ean Erreterriako Nieseen aretoan ospatutako saribanaketa 700 euro eta oroigarria jaso zituen eta 'Beranduegi' izeneko lana

irakurri zuen. anek esan digunez, oraindik ez du pentsatu sariarekin zer egingo duen.

Aitor Albistur oreretarrak irabazi zuen bigarren saria, 400 eurokoa, 'Herentzia' lanarekin.

Ostean, bertso saioaz gozatu zuten Niessenera hurbildu ziren guztiek.

Zapirain anaiak lehiaketa

Bertsopaper lehiaketa Erreterriako Xenpelar Bertso Eskolak antolatzen du eta XXVII. edizioa izan da aurtengoa.

Lehiaketa hau 17 urtetik gorako zaletuei zuzendua dago eta bertsolaritza sustatzeko helburua du.

Aurkezten diren lan sortek 8 bertso gutxienez eta 14 gehienez izan ditzake eta lehiakide bakoitzak hiru aurkez ditzake gehienez. Gaia libre da, bertsoak jatorrizkoak, saritu edota argitaratu gabeak izan behar dira.

Manex Mujikak, Iker Goñik eta Itziar Etxegiak osatu zuten epaimahaia eta aurkeztutako 16 bertsopapere artean borobilena Labaka-



Ane Labaka herritarra Zapirain Anaiak bertsopaper lehiaketako saribanaketa.

OARSOALDEKO HITZA

rena zela erabaki zuen hirukoak.

Emakume heldua

Arestian aipatu legez, Lasarte-Oriako bertsolariak 'Beranduegi' bertso sorta aurkeztu zuen lehiaketara.

Anek berak azaldu digunez, "beste bertsopaper lehiaketetan gai bat hartu eta hori jorratzen dut. Baina kasu honetan, bestela izan da. Gipuzkoako bertso txapelketa prestatzen ari nintzela gai ireki bat eman zidaten eta pertsonaia bat etorri zitzaidan burura, adineko emakume bat".

"Pertsonaia hori oinarri hartuta idatzi nuen aurkeztu-

tako bertso sorta. Emakume horrek bere bizitzaren atzera begirakoa egiten du. Beti tokatzen zitzaiona egiten zuen, ezkondu, umeak zaindu, senarra zaindu... Zaintzaren gaia hainbat bertsotan azpimarratzen dut. Eta momentu batera iristen non bere buruari galderak egiten hasten den. Hori nahi zuena ote zen eta aldatu dezakeen galdetzen dio bere buruari. Horregatik, sortako azken hitzak, *berandu izan daiteke baina ea ez den beranduegi dira*" atxiki du.

Hainbatetan garaile

Ez da Lasarte-Oriako bertsolariak sari hau lortzen duen

duen lehen aldia. Laugarren aldia da.

Hain zuzen ere, 2010 urtean, 'Ametsen lengoian' izenburua zuen bertso sorta izan zen lehen aldia. Gainera, helduen mailan Anek eskuratzen zuen lehen saria izan zen. Honetaz gain, 2012. eta 2014. urteetan aurkeztutako 'Lurretik mila metrora' eta 'Zirrikietan' bertso sortak ere lehen postuarekin saritu zituen lehiaketako epaimahaiak.

Eta Erreterian bertan Ibon Zabalaren omenez egiten den gazteen sariketan ere hiru aldiz jarraian nagusitu zela gogora ekarri du Anek.

Lore eta paisaiez bete dira Jalgiko hormak

Jalgi Kafe Antzokiak berriro ere erakusketak hartuko ditu bere baitan, kudeaketa aldatzare ostean. Tabernako hormek artelanak izango dituzte zintzilik urtariletik aurrera.

Lehen erakusketa dagoeneko ikusgai dago. Jose Luis Oria margolari azpeitiarraren eskutik, olioiz margotutako Donostia eta Zumaiaiko txokoen ikuspegi ezberdinak edo natura hilez gozatu ahalko dute tabernara hurbiltzen diren herritarrek.

Amateurra

Jose Luis Oria margolari amateurra da. Nahiz eta Azpeitian jaioa izan, egun Donostian bizi da.

Duela gutxira arte modu pertsonalean erakusten zituen bere lanak, ikusleak erakartzen ez zituztela uste baitzuen. Donostiako Errekalde tabernan edo Irunen egindako



Jose Luis Oria margolariak lan klasikoetako gaiak hala nola, paisaia edo natura hilak erakusten ditu Jalgi Kafe Antzokian jarri duen erakustetan.

erakusketek bere lanen balioaz jabetzera eraman dute eta horregatik, bera lana Lasarte-Orian dago erakusgai egun hauetan.

Jalgiko erakusketan ikusi daitezkeen margo klasiko

gain, lan abstraktuak ere egiten ditu margolariak.

Lanak salgai

Erakusketa margo guztiak salgai daude. Interesa duenak Jalgi Kafe antzokian bertan



eskuragarri du koadroen zerrenda eta hauen prezioen orria. Egileak jakitera eman duenez, prezioak negoziagarriak dira.

Informazio gehiago eskuratu nahi duenak margolaria-

rrekin zuzenean edo Ttakun kultur elkartearekin jarri daiteke harremanetan honako telefono zenbakietan: Jose Luis Oria, 658 41 99 95 edo Ttakun kultur elkarte, 943 37 14 48.